

# Natalia López

LA REINA



## ERRESISTENTZIARAKO TRESNA

“Aita artista denez, txikitatik sortu dit interesa arteak. Umetan eskuekin gauzak egiten aritzen nintzen; adibidez, eskulturak egiten nituen, eta marraztu eta margotu. Hala ere, niretzat garrantzitsuena da artea sistemari aurre egiteko erresistentzia tresna bat dela. Uste dut, arteari esker, sistemarekin oso egoskorra naizela. Horregatik, zaila izan arren, artearen bidetik jarraitu nahi dut. Hala ere, Latinoamerikan oso gutxi babesten denez, oso erraza da amore ematea”.

## “Aitarekin dudan lotura aireak mantendu du beti”

Migrazio prozesuek etorkinengan duten eragina aztertu du Natalia López artistak (Bogota, Kolonbia, 1978). Horretarako hiru saioko prozesu sendatzaile bat gidatu, eta bizitakoa jaso du *Nire maitasun guztia airearen bidez bidaltzen dizut* erakusketan. Uhartan, Burlatan eta Atarrabian (Nafarroa) bizi diren zenbait etorkinekin elkarlanean sortu du. Erakusketa ikusgai dago urtarrilaren 14ra arte Atarrabiako San Andres errota. Bartzelonako Idensitat proiektuaren eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Fundazioaren egonaldi artistiko baten parte da proiektua.

 OLAIA L. GARAIALDE  ERAKUSKETAK UTZIAK

### Airea oso agerian dago zure lanean; nola ulertzen duzu airea?

Askotan egin dut lan naturako elementuekin, baina beti ingurumenaren ikuspegitik. Proiektu honetan, aldiz, esanahi politikoa aurkitu nuen. Airearen bidez gauza asko bidali edo adierazi daitezke; hala nola maitasuna eta mina. Aire munduko bazter guztietan dago. Gainera, ez duenez mugarik, erresistentziarako elementu politiko bat da. Proiektu honetan, ingurumenari erreparatu baino gehiago, ikuspegi politikoan eta afektiboan jarri dut indarra.

### Lana sortzeko premisa bat airea lantzea zen. Errazagoa da premisa batetik abiatzea, edo mugatzailea izan daiteke?

Nire kasuan, proiektuan parte hartzeko arrazoia izan zen. Nire aita etorkina da, eta arrazoi ekonomikoengatik eta politikoengatik hama-

bi urte ziren ikusten ez nuela. Lagun batek deialdia ikusi, eta pentsatu zuen oso aproposa izan zitekeela niretzat, askotan lan egin dudalako airearekin. Deialdia ikusi nuenean, aitarekin egon ahal izatea ideia ona izan zitekeela iruditu zitzaidan. Segituan, aireak aitarekin dudan harremanean izan duen eraginaz pentsatzen hasi nintzen.

### Zer-nolako eragina izan du?

35 urtez aita eta biok gutunen, deien eta posta elektronikoaren bidez egon gara konektatuta, eta horiek erabiltzeko airea behar dugu. Horregatik, elkarren artean konektatzen gintuen airean jarri nahi izan nuen arreta. Aitarekin konektatuta mantendu nau; aitarekin dudan lotura aireak mantendu duelako beti.

### Horregatik ardaztu duzu lan prozesua etorkinen inguruan eta



"Etorkinentzat espazio bat sortu nahi nuen, haiek mina eta urrun daudenekiko maitasuna adierazi ahal izateko".

### harremanetan?

Etorkinekin lan egin nahi nuen, ikasi nahi nuelako aitak zer bizi izan zuen, eta nola bizi izan zuen elkarrengandik urrun egoitea. Nire mina osatzeko proiektua izateaz gain, etorkinentzat espazio bat sortu nahi nuen, haiek mina eta urrun daudenekiko maitasuna adierazi ahal izateko.

### Horretarako topaketa afektibo eta poetikoak egin zenituzten; nola joan ziren?

Antzinako kulturen inguruan ikertzen ari naiz Kolonbian. Kultura indigenetan prozesu sendatzaileek hiru fase dituzte; eskerrak ematea, garbiketa eta gozatzea. Horregatik, lehenengo faserako borobil bat egin, eta hitz egiteko espazio bat sortu genuen. Helburua zen konfiantzazko espazio bat sortzea maitasunaz edo minaz hitz egiteko, baina bihotzetik; hau da, inor eraso, epaitu eta kritikatu gabe, eta entzuten. Ostean, eskerrak emateko erri-tua egiten genuen. Horretarako, haziak

landatu eta inguruan ditugun gauza onen inguruan hausnartu genuen.

### Urarekin zerikusia zuen bigarrenak. Zer egin zenuten?

Borobil bat egin, eta idaztea esatea baino errazagoa denez, sentitzen genuena idatzi genuen. Helburua zen paperaren bidez tristura, amorrua eta beste emozio batzuk azalera-ze. Ostean, ozen esatea proposatu nien. Azkenik, esandakoa harri batzuetan idatzi eta errekarabota genituen. Indigenek uste dute urak garbitzen laguntzen duela, eta nik konfiantza dut horretan.

### Nolakoa izan zen azkena?

Erritual gozoa deitzen diot. Borobil bat egin, eta paper batean idazten hasi ginen. Ostean, paperean idatzitakoa ahoz partekatze-ko aukera egon zen. Azkenik, haizearen bidez zabaltzen diren haziak askatu genituen. Gehienek gerraren eta urrun dituzten senideen inguruan idatzi zuten.

### Gehienek ez zenuten elkar ezagutzen; zaila izan da konfiantzazko giroa sortzea?

Uste nuen zailagoa izanen zela. Izugarria iruditu zait hiru egunetan sortu dugun maitasuna eta adiskidetasuna. Erljio, herrialde, kultura, adin eta pentsamendu ezberdinetakoak izan arren, berdinen artean egin izanak konfiantza eta adiskidetasuna sortu du.

### Zein ondorio atera dituzue?

Nabarmendu dugu gauza asko gortzen ditugula eta ez diegula espaziorik ematen emozioei. Ez dugu denbora hartzen maitasuna adierazteko, esateko zerk ematen digun mina, eta eskertzeko. Ez dugunez adierazten zer sentitzen dugun, barnean zokoratu-ta gelditzen dira emozioak. Horregatik, ikusi dugu oso garrantzitsua dela adierazteko espazioak sortzea. Gainera, uste baina sinpleago da espazioak sortzea. ●